

Erresoluzio Batzorde Bakarrak ezarritako **MREL eskakizunak** betetzen ditu jaulkipenak

## **Kutxabankek arrakastaz ezarri ditu lehen bono berdearen 500 milioi euro**

- **Bonoen prezioa mid-swapen gainera oinarriko 75 puntutan kokatu da, 5 eta 6 urte arteko amortizazio epealdiarekin**
- **Bono berdeentzako jaulkipen-esparrua onartu du Erakundeak, ingurugiroan eragin positiboa duten egitasmoetara likidezia bideratzeko**

**2021ko urriaren 6an.** Kutxabankek arrakasta izan du **500 milioi** euroko balioarekin egin duen lehentasunik gabeko senior zor berdearen lehen jaulkipenean, gutxienez 5 eta gehienez 6 urteko amortizazio epealdiarekin.

Jaulkipenaren helburu estrategikoa ingurugiroan eragin positiboa duten aktibo eta egitasmoetara likidezia bideratzea da, karbono isuri txikiagoak dituen ekonomia babesteko, eta finantza-jasangarrien bilakaera bideratu eta sustatzeko. Energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren eraikuntzak eta energia berriztagarriak dira inbertsioa jasoko luketen proiektuetako batzuk.

Jaulkipenaren % 78 kalitate handiko nazioarteko inbertsore instituzionalek izenpetu dute, eta eskari osoa 1.250 milioi euro ingurura iritsi da, jaulkipenaren bolumena baino 2,5 aldiz handiagoa. Bonoen errendimendua era honetako jaulkipenen erreferentzia den **mid-swapen gainera oinarriko 75 puntutan** kokatu da.

Halaber, merkatuek euskal finantza Taldean duten konfiantza erakusten du eragiketaren arrakastak. Hain zuzen ere, **Moody's, S&P eta Fitch**, nazioarteko agentziek **Baa3/BBB-/BBB+** mailetan kokatu dute jaulkipena, era honetako tresnek alorrean lor dezaketen onenetakoa.

Jaulkipenak BBVA eta Norbolsa izan ditu egituraketa berdearen aholkulari, eta Barclays, BBVA, HSBC, Norbolsa eta Société Générale zuzendariorde.

### **MREL eskakizunei lotutako jaulkipena**

JUR-ek (Erresoluzio Batzorde Bakarra) ezarritako erregulazio-eskakizun berriaren arabera, Kutxabankek MREL eskakizun txikienetakoa du Espainiako finantza sisteman, ikuskatzaileak finantza taldearen kaudimenean eta ebazgarritasunean duen konfiantzaren erakusle.

Honela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera Kutxabankek berezko fondoan eta pasibo onargarrien bolumena era kontsolidatuan arriskuaren esposizioarekiko (TREA) % 17,10en kokatu beharko da gutxienez, eta % 5,27n palankatze-ratioarekiko (LRE). Gainera, helburu ertain loteslea ezarri da 2022ko abenduaren 1erako, % 16,59ko TREA eta % 5,27ko LREkoa. Gaur ezarri den jaulkipenarekin, erresoluzio batzordeak jarritako helburuak bete ditu Kutxabankek.

### **Bono berdeen esparru berria**

Bono berdeen esparrua sortu du Kutxabankek, egiten dituen jaulkipenak ingurugiroan eragin positiboa duten aktibo eta egitasmoetara bideratzeko. Esparru honek Kutxabankek garapen jasangarrian dituen lehentasun estrategikoak biltzen ditu. Gainera, klima-aldaketari aurre egin eta garapen jasangarria sustatzeko dituen konpromiso eta helburuak finkatzen ditu. Esparru hau Vigeok, nazioarteko jasangarritasun agentziak egiaztatu du. Egitasmoari buruz egin duen hausnarketan, sendo iritzi dio esparruari, merkatuko estandar eta jokabide onenekin lerrotatua dagoelakoan. Agentziak berak dio, handia dela jaulkipen honetan lortutako fondoekin Kutxabankekin finantzatzeko dituen egitasmo berdeen potentziala.

Bonoen ondarea abian diren eta martxan jarriko diren egitasmo berdeetara bideratuko da soilik, maileguetan, inbertsioetan edo Kutxabanken balantze barruko proiektuetan. Europar Batasunaren taxonomia berdeak ezarritako hautaketa irizpide teknikoak bete beharko dituzte, eta EB-k dituen sei ingurugiro egitasmoetatik bat edo gehiago sustatu beharko dituzte.

Kutxabankek energia berriztagarriekin, garraiobide jasangarriekin eta energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren eraikuntzekin lotutako inbertsioak sustatuko ditu.

Erakundeak fondoan noranzkoa zehaztuz, eta ekimenarekin lortutako ingurugiro eraginei buruz urtero jarraipen txosten bat argitaratzeko konpromisoa hartu du. Alor hauek biak aditu independente batek egiaztatuko ditu.

Kutxabank aitzindaria izan zen 2015ean 'social covered bonds' delakoak merkaturatu zituen lehen finantza-erakundea izan baitzen, bonoen errendimendua babes ofizialeko etxebizitzekin lotzerakoan, hauen erosketa, alokairua edo sustapena bultzatzeko.